

BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDON
NEREA YEREGUI BALDA
IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI
ANDER PRADOS OTAMENDI

BERTARATU EZ DIRENAK

IDAZKARIA

Joanes Aleman Olló

Betelun, Udaletxeko udal
bilkuren gelan, 2024ko
urtarrilaren 31n arratsaldeko
zazpi eta erdiak direnean,
ondoan aipatzen diren
zinegotziak elkartu dira,
Lorenzo Zubillaga
Goicoechea alkatea buru dela
eta egintzaren fede ematen
duen Joanes Aleman Olló
idazkariak lagundurik.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2023-12-27KO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu den 2023-12-27ko bilkurako aktaren inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak akta bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko abenduaren 20an, 84/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2023ko urriaren 26an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

2. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko abenduaren 22an, 85/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2023ko azaroaren 29an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

3. Diegaby Hostal S.L.

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2023ko abenduaren 29an, 86/2023 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Diegaby Hostal Slri baimena ematea abenduaren 31tik urtarrilaren 1era eta urtarrilaren 5etik 6era bitarteko gauetan ixteko ordutegia 7:00ak arte luzatzeko.

4. Kirol Mankomunitatea

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko urtarrilaren 8an, 1/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Araitz-Areso-Betelu-Larraun eta Lekunberriko Kirol Mankomunitateak. urtarrilaren 13an eginen den XVII. Araitz-Beteluko kroserako frontoia eta bertako dutxak eta plaza erabiltzeko baimena ematea.

5. Langile finkoaren izendapena

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko urtarrilaren 16an, 2/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Mirentxu Eskamendi Iriarte Beteluko Udaleko lan-kontratuko langile finko izendatzea, administrari laguntzaile lanpostua betetzeko.

6. Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko urtarrilaren 19an, 3/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2023ko abenduaren 27an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

7. Asier Arregui

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2024ko urtarrilaren 22an, 4/2024 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Asier Arregui Alegriari udaletxeko 106. gela erabiltzeko baimena ematea otsailaren 20era arte, Correoseko zerbitzuetarako.

3. JASOTAKO IDATZIAK

1. – Nafarroa Oinez

2024ko urriaren 20an, Zangotzan, eginen den Nafarroa Oinezeko dirulaguntza eskaera egin du Zangotzako ikastolak. Honen aurrean aho batez ZERA ONARTU DA:

270 euroko dirulaguntza ematea Zangotzako Ikastolari.

2.- Tüv Rheiland Navarra, s.a;

TÜV RHEILAND Navarra, S.A.ri baimena ematen zaio 2024ko martxoaren 6an Beteluko nekazaritzako ibilgailuei eta ziklomotorrei aldizkako azterketa teknikoa egiteko udal-plaza erabiltzeko. Iragarki-taulan ikuskapenen datak eta ordutegiak jarriko dira.

4. UDALBATZAREN EZAGUTZARAKO

1. Landa Garapen eta Ingurugiro zuzendari nagusiaren 241E/2023 ebazpena

Udalbatzari Landa Garapen eta Ingurugiro zuzendari nagusiak emandako 241/2023 ebazpenaren berri eman zaio. Ebazpen horretan Beteluko Udalak Aiztitxo parajeetan dauden iturriak eta bideak konpontzeko egindako dirulaguntza eskaera ukatu zaio aurrekontu zuzkidura faltagatik.

5. FAKTUREN ONESPENA

Registradores de España	Urumea nota simple	10,91
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 3-2024	350,30
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 4-2024	294,27
Rekalde Zurgindegia	F. 702-23	2.286,90
Ofico	Urtarrileko lan aholkularitza	134,81
Codisna	F. 24022 Hipoclorito	154,88
Rodriguez Ezpeleta	F. 2023/55	295,00
Rodriguez Ezpeleta	F. 2023/54	486,75
Bar Tolo S.L.	F. 15	1.857,35
Iberdrola	F. 21240111010019677	88,72
Bar Tolo S.L.	F. 14 erreka materiala erretiratu	26.620,00
Goienar	Abenduko udaletxeko energia elektrikoa	1.460,23
Goienar	Abenduko eskolako energia elektrikoa	1.362,45
Taxilon	F. 919	132,80
Nafarroako iparraldeko euskara mankomunitatea	2024ko kuota (%50) aurrekontu orokorra	3.954,00
Nafarroako iparraldeko euskara mankomunitatea	2024ko kuota (%50) eskualdeko aurrekontua	3251,50
Iberdrola	09240105010012646 argiteri publikoa	38,13
Iberdrola	Kale Nagusia 7, 2 ezkerreko abenduko energia elektrikoa	12,46
Iberdrola	Urberoa	0,90
IBERDROLA	Kale Nagusia 7, 2 ezkerreko	0,57
Animsa	F. SA58	48,34
Ascensores Arga	F. 009551	130,68
M. Garcia Satrustegui	F. A1/90 abendua	547,30

Juan Cruz Zabala Etxebeste	F. 31	3.748,40
Angelines Carrillo Ruiz	F. A2/2024	90,00
Jose Manuel Cruz Liciaga	F. 23.45	1.125,30
Iberdrola	F. 09240103010023063	402,28
Iberdrola	Urberoa abendua	9,30
Miguel Ramon Olano Zabaleta	F. 82/2023	121,00
Dimarpe SL	F. FV233328	242,81
Goener	Azaroko udaletxeko energia elektrikoa	1.175,03
José Manuel Cruz Liciaga	F. 23.44	5.593,83
Euskal Editorea S.L.U	Berria 2024ko harpidetza	482,00
Serlimpia	F. 230601	67,76
Venus Margarita Campos Walsh	Abenduko garbiketa	2.734,59
Orona	Mantenimendua	237,16
Codisna	F. 24005 mantenimendua	2.170,49
IDM Life Saving Equipment corporation Iberia SLU	F. 2 002114	122,71
Lyreco	F. 7050369184	28,18
Codisna	Conexión wifi remota	250,00
Wikai	F. 1/25753	112,10
Chocarro y Urmeneta S.L.P	2023ko 3 eta 4 hiruhileko hirigintza aholkularitza	3.375,90
Rekalde Zurgindengia	F. 698-23	125,54
Rekalde Zurgindegia	F. 697-23	2.523,20
Rekalde Zurgindegia	F. 701-23	66,55
Rekalde Zurgindegia	F. 700-23	1.264,21
Rekalde Zurgindegia	F. 699-23	182,47
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
KIDE AHOLKULARITZA	Abenduko LAN AHOLKULARITZA	375,10
Darío Rubén Bécares Corvalán	F. 2024 ^a 01n006	181,50
Angelines Carrillo Ruiz	F. A 4/2024	44,65
Eroski Iruña (kutxatik)	Tinta Hp	57,80

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko zortzi eta erdiak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.